

TOKIKOM

2011ko martxoa | 102. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Langile
sutsuak



HITZARTUTAKO ETXEBIZITZAK DERION



ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI

Bilbo Handiko
habitat berria

Izena emateko epea apirilaren 3ra artekoa



Eta egokitzen bazaizu?

Zozketa berria

eman ezazu izena!

*Dagoeneko 300 familia
baino gehiagok gozatzen
dute proiektu honetaz.*

Bete beharreko baldintzarik gabe,
kalitateko hitzartutako etxebizitza baten
zozketan parte har dezakezu:

- Jabetzan
- Derioko goiko aldean
- Berdegune zabalak
- Kirol ekipamendu pribatua lehentasunez erabiltzeko eskubidea
- Komunikazio onak
- Neurri bikainak hartu dira isolamenduan eta aurrezpen energetikoan



ETXEBIZITZA

Derio

www.deriokoudala.net

94 645 90 15

www.sukia.com

sukia

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Jabier Lekerika, IZAE Zamudioko Argazki Taldea, Xabier Díaz, Bestorrene, Oihana Astobietta, Belen Gana, Giomar, Xabi, Jon Goikouria, Itsasne Zubiri eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Kherau taldea



22 Korrika 17



24 Derioko Kultur Birika

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Ardiak
- 12 Gurean izan da... Kherau taldea
- 14 Gaztea eta... Gazte solidarioak
- 16 Derioko Kultur Birika
- 18 Txorierriko suhiltzaileak
- 22 Korrika 17
- 24 Jesús Robleda margolaria
- 26 Txorierri ezagutu... Larrabetzuko eskola
- 28 Elkartek... Sondikako Inauterien Elkartea
- 30 Inauteriak, Txorierrin
- 32 Osasuna... Erabili doan farmazia
- 33 Teknologia... ADN
- 34 Aikorrizketan... Anafasetik Kaifasera
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax.: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

ETXERAINO



943-59 29 50

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

etxeraino@etxeraino.net

Klik batean esku artean: erosketa kolektiboak

Egiazkoa dena ezin daiteke ukatu: internetek askotariko aukerak zabaldu dizkigu azken urteotan, tarteka, produktua edo zerbitzuak berehala lortzeko hautabidea. Baina joera hori haratago doa, eta nahi duguna nonahi eta bat-batean lortzeko aukera izateaz gain, orain, beharpen izugarriekin lor ditzakegu erabiltzaileok produktu edo zerbitzu horiek. Erosketa kolektiboen inguruan ari naiz eta, izenak ongi dioen moduan, taldeka egiten diren erosketak dira, hain zuzen. Sarean puri-purian dagoen ereduak da eta merkataritza elektronikoan iraultza ekarri du jada.

Baina, zertan oinarritzen dira erosketa kolektiboak? Sare sozialen bitartez, produktu edo zerbitzu baterako, ahalik eta erosle gehien lortzean datza, eskaintza betetzeko eta deskontua ahalik eta handiena izateko. Normalean, eskaintza

horiek 24 ordu irautesen dute. Denbora hori igarota, gutxieneko erosleak lortu badira, eskaintza bete egingo da eta erosi dugunaz gozatzeko abagunea izango dugu. Gutxieneko erosleak lortu ez badira, berriz, ahaz gaitzke gure erosketaz, ez da gauzatuko-eta.

Euskal Herrian badaude erosketa kolektiboen inguruko hainbat webgune: *deskontu.com*, *colectivia.com* eta *letsbonus.com*, nahiz eta azken hori, jatorriz, Kataluniako web-orria izan. Horiek guztiek leku jakin bateko eskaintzak erakusten dizkigute egunero, eta hain dira erakargarriak orria horietan aurki daitezkeen eskaintzak gero eta gehiago direla eskaintza horiek pasatzen utzi nahi ez duten lagunak. Ilea mozteko eskaintza-tik internet bidez gaztainak erosteko eskaintzara. Aukerak oso anitzak dira. Erosketa kolektiboen ereduak Estatu Batuetan du jatorri, eta krisi ekonomiko-



SARA GANDARA
(Kazetaria)

aren ondorioz sortu den ideia dela esan dezakegu. Erosketa kolektiboetan erreferente den Groupon webguneko sortzaile Andrew Mason-i zor diogu ideia eta, duda barik, internet bidez saltzeko eta, batez ere, erosteko era aldatu du.

Noski, sarean sen onarekin erostea gomendatzen da, maula egin nahi dutenek ez dutelako atsedenik hartzen. Beraz, sen apur bat, eta klik batean esku-ratuko dituzue gauzarik susmagaitzenak. Agian klik batean ez... baina 24 ordutan bai. Horixe baita erosketa kolektiboen filosofia.

Gizakiak eta landareak elkarrekin bizi izan gara beti, eta arkasatsa aukeratu dut bion arteko antzekotasunak aztertzeke.

Arkasatsa gutxien pentsatzen den tokian egoten da: basoetan, bide ertzean, zuhaitz baten azpian normalean... Eta gora eta gora egiten du, zuhaitzaren adarrez baliatuz. Ez esan goranahiren bat ezagutzen ez duzuenik, trikimailuak erabiliz goi-kargua lortu duen kokoloren bat.

Arkasatsaren hostoek bihotz-itxura dute, minik ematen ez dutela dirudite, baina ezin gara fidatu bere enbortxoak dituen arantza txikiez: zauriak egiteko

Arkasatsa



JABIER LEKERIKA
(Irakaslea)

modukoak dira. Lagun asko izan dezakegu, baina benetako laguntza behar denean, gehienak desagertu edo gure aurka egiten dute arerio bihurtuta.

Baina bizitzan ezin zaio denari ikuspuntu okerretik begiratu, denok baitugu zerbait ona. Landare honen sustraiak, adibidez, sendabelar moduan erabiltzen dira gaitz batzuk osatzeko. Zelan alderatu gizakiok? Besteen txarra azaltzeko ohitura dugu, euren sustrai ezkutuetan zerbait ona izango dutela pentsatu barik. Zergatik ez saiatu gure lagunengan eta lankideengan zerbait ona topatzen? Saia zaitezte, baietz aurkitu!

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr

NEKA-MUTILEN
ILEAPAINDEGIA

Astearte - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Bahea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

amaz
taberna

leizola (ehendakari) 7 (Zamudio)

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Ahozko ondarea batzen dabilta Tximintxeakoak



Ahotsak.com proiektuak Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bilzte eta hedatzea du helburu; hau da, herrietako adineko jendea elkarriketaztea eta beraien euskara eta bizipenak herritarren artean zabaltzea.

Tximintx Derioko euskara elkarteak bat egin du egitasmo horrekin, eta dagoeneko lagun batzuk elkarriketatu dituzte Derion, Loion eta Sondikan. "Gazteak zireneko istorioak kontatzen dizkigute: eskolari buruzkoak, jolasak, baserria, ohi-turak, gerra, familia... Helburu bikoitza

lortzen dugu lan honi esker: alde batetik, hemengo euskara ezagutzea eta zaintzea; eta, bestetik, orain dela hainbat urte gure eskualdean zelako bizimodua eta ohiturak zeuden jakitea".

Azaldutakoaren arabera, Tximintx elkartekoek 65 urtetik gorako 15 lagun elkarriketatzeko asmoa dute, eta elkarriketak datozen hilabeteetan amaituko dituzte. Elkarriketa bakoitzetik tarterik esanguratsuenak hartu eta DVD batean jasoko dituzte. Lana *ahotsak.com* webgunean ere emango dute argitara.

Izen-abizenak euskaraz jartzeko kanpaina

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak "Apelliduetan abizendu" kanpaina jarri du abian, eta etxetik etxera banatu den triptiko baten bidez eman die horren berri txorierriar guztiei. Kanpainaren helburua da herritarrak izen-abizenak euskarazko grafiaz idatzera animatzea, eta horretarako egin behar diren urratsak azaltzen dira triptikoetan. Izen-abizenen grafia aldatzeko, erregistro zibilerako edo epaitegira jo behar da, eta agiri hauek aurkeztu: nortasun agiriaren fotokopia, hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria, errolda ziurtagiria eta familia liburua. Adingabeek gurasoekin egin behar dute eskaria, eta gurasoen nortasun agiriaren fotokopia eta haien errolda ziurtagiria ere aurkeztu beharko dituzte. Beste alde batetik, aukera dago Euskaltzaindiaren webgunean (www.euskaltzaindia.net) izena edo abizena euskaraz zelan idatzi behar den kontsultatzeko. Argibide gehiago nahi izanez gero, Euskara Zerbitzura ere jo daiteke: 94 454 03 50; euskera@txorierri-mank.org.



GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

BAR BIDE-BI



Goizeko 5etatik
surrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cda. 517
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



Zerbitzu berriak, Gurea Aretoan

Derioko Gurea Aretoak zerbitzu berriak eskaintzen dizkie erabiltzaileei. Aretoaren kanpoaldean plasmantaila bi jarri dituzte, eta informazio hau ematen da bertan: zine-programazioa eta ordutegiak, filmen trailerrak eta herritarrentzat interesgarria izan daitekeen udal informazioa. Etorkizunean beste pantaila bi kokatuko dituzte: bata, kiroldegian; eta bestea, Kultur Birika kultura etxean. Gainera, lehen zapatuetan eta domeketan baino ez ziren ematen filmak, baina orain barikuetan ere eskaintzen dituzte, aretoan beste ikuskizunen bat antolatuta ez bada. Zine-programazioa www.version-digital.es webgunean ere kontsulta daiteke. Era berean, doako wifi gunea atondu da aretoaren inguruan.

Beste alde batetik, munduko edozein herritan ematen diren ikuskizunak Gurea Aretoan ikusteko aukera ere egongo da laster: opera, balleta, kirola... Ikuskizunok satelite bidez eta zuzenean emango dira.

Berdintasuna, ikasgeletan

Txorierriko Ikastegi Politeknikoan berdintasun proiektu bat jarri dute abian ikasturte honetan. Mariví Cuartango proiektuaren arduradunak adierazitakoaren arabera, 2008-2009 ikasturtean egindako azterketaren ondorio da berdintasun proiektu hori. Azterketa horretan ondorioztatutakoaren arabera, hainbat arlo hobetu behar dira ikastetxean. "Arlo horien artean daude orientazio akademikoa eta profesionala, balioko baitute sexuen arabera estereotipoak aurre egiteko; edo curriculum programak, irudiek eta edukiek agerian uzten baitute emakumeak bigarren mailako eginkizuna eman zaiola zientzia eta jakintza arloetan; baita barne eta kanpoko komunikazioaren hizkera ere, zama sexistarik ez egoteko; eta, azkenik, Hezkuntza proiektuan aritzen diren eragileak sentibera-tea".

Azterketaren arabera, ikasleek ez dute neskekiko diskriminazio negatiborik antzeman irakasleengan. Beharrezkotzat jo dute, hala ere, erabiltzen duten materiala hobe dadin. "Liburuetan, programe-tan, ikus-entzunezkoetan... ez direlako berdin jorratzen emakumeen eta gizonen irudiak".

Bide bi ezarri dituzte, berdintasun proiektuaren barruan prestatutako material didaktikoa zabaltzeko: alde batetik, ikasgela eta tutoretzak; eta bestetik, kanpora begira sortutako lantalde bat, mate-

rialak beste ikastetxeei ezagutarazten dabilena. Proiektuak harrera ona izan du ikastetxean, eta, epe luzearako lana bada ere, aurrerapen batzuk egin dira. Besteak beste, honako hauek: material didaktikoa osatzea, batxilergoko programetan berdintasuna lantzeko akordio pedagogikoak sinatzea eta Behargintzarekin eta beste ikastetxe batzuekin egiten den sareko lana indartzea.




hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


Inaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31
Magalarte Txakolina
ARETXARTEA HERRI ETXAKO
BIZKAIA Txakolina 75 cl. 10,75% vol.
Denominación de Origen
Lot: 1-45

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 8 - 1.º.º.º.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12


luz zamudio
ARGI APARATUAK
Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Euskarazko film laburrak



a: Topagunea

Martxoaren 15ean hasiera eman ziztaion Laburbirari, euskarazko film laburren zirkuituari. Ekimena zortzigarren aldiz egin da aurten, eta orotara 27 emanaldi eskainiko dira apirilaren 16ra arte: 26 emanaldi, Euskal Herriko herri eta hirietan; eta emanaldi bat, Londreseko Euskal Etxean.

Txorrierra apirilaren 14an helduko da Laburbira, Tximintx Derioko euskara elkartearen eskutik. Gurea Aretoan film hauek ikusteko aukera izango dugu arrastiko 7etatik aurrera: Kepa Errastiren *Mari-txu*; Asier Altunaren *Artalde*; Angel Aldarondoren *Ondar ahoak*; Jon Artolaren

S@rtaldea; Saioaren Aizpuruaren *Esku-titi*; Aitor Artola, Iruñe Gurtubai eta Ibai Vigil-Escaleraren *Blank postcards*; Zapatilla films taldearen *Biak bat*; Trastaka taldearen *Barrura begira*; eta Kontraplano taldearen *Nire bista faboritoa*. Azken hiru filmak Kameratoia ikus-entzunezko rallyaren haritik sortutako lanak dira.

Laburbira Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, herriz herriko euskara elkarteekin lankidetzan, martxan jarritako ekimena da, eta helburu hauek ditu: euskarazko ikus-entzunezko urteko produkzioa ezagutaraztea eta herrietako kultur eskaintza aberastea. Gurean Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan antolatu da.

Literaturaz berbetan

Literaturaz Berbetan Larrabetzu-ko irakurle bilguneak aurrera jarraitzen du ikasturtearekin. Martxoan, Xabier Mendigurenen *Sakoneta* liburua izan zuten hizpide, eta apirilaren 14an, solasaldia egingo dute Koldo Izagirren *Autopsiarako frogak* lanari buruz. Saioa Hori Bai gaztetxean egingo da iluntzeko 8etan. Maiatzaren 19an, Miren Agur Meaberen *Bitsa* eskuetan liburuan sakonduko dute. Ekitaldia iluntzeko 8etan izango da Anguleri kultura etxean.

Pegatina lehiaketa

Altzora Sondikako euskara elkarteak pegatina lehiaketa antolatu du, bost urtetik hamaika urtera bitarteko umeei zuzenduta. Marrazkiaren gaia euskara elkarrekin da eta pegatinan "Altzora euskara elkarrekin" esaldia agertu behar da. Hala ere, elkartearen logotipoa ez da derrigorrean agertu behar, eta agertzen bada, koloreak alda daitezke. Pegatinak 10cm x 10cmkoa izan behar du eta horrek edozein forma eduki dezake: zirkulua, formakoa, triangelu-formakoa, lauki-formakoa... Lanak formatu digitalean zein eskuz eginda onartuko dira eta apirilaren 1a baino lehenago aurkeztu behar dira liburutegian, ludotekan edo eskolan. Pegatinen atzeko aldean izen-abizenak, adina eta telefono zenbakia idatzi behar dira. Irabazle aukeratu den pegatinaren aleak inprimatuko dituzte euskara elkarte-koek, eta irabazleak ezusteko bat jasoko du sarritzat.


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papiertza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


• Ingelera maila guttiarik
• Eskolak enpresetan
• Cambridge Unibertsitateko azterketak
prestatuta, EOI...
• Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan
Garailelza 120 D Erremerterri 14
48196 LEZAMA 48150 SONDIKA
T: 94 453 64 69 T: 94 453 64 08
amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com


ATARRABI
Erremerterri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Lezamako liburutegia, aitzindaria on-line zerbitzuan

Lezamako liburutegia Plataforma Digital ekimenean dabil murgilduta. "Horren bitartez, Internet bidezko proiektu instituzionalak sortzea sustatu nahi da, on-line erako administrazioarantz urratsak eginez", azaldu dute prentsa-ohar batean. "Ekimen honen barruan, Lezama da proiektuak gauzatu dituen Txorierriko lehen udalerria". Proiektu bi garatu dituzte, hain zuzen ere: alde batetik, liburutegiaren bloga; eta, bestetik, idazmahai birtuala. Liburutegiak helbide honetan du bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/lezama>. Bertan azaltzen dira, besteak beste, uneen-uneen eskaintzen diren nobedade literarioak, ikus-entzunezko nobedadeak eta herrian antolatzen diren jarduerak.

Sare sozialetan

Idazmahai birtuala Netvibes tresna erabilia sortu dute: www.netvibes.com/lezamakoliburutegia. Edozein herritarrek derrigorrean bisitatu behar duten tresna da; izan ere, ez da soilik liburutegiko gaietara mugatzen eta albiste interesgarriak ere jasotzen ditu: herriko jardueren agenda, udal ekipamenduei buruzko informazioa eta kultur edukiak... Liburutegia Facebooken ere badago. Esan duten moduan, liburutegia Interneten eta sare sozialetan sartu nahi dute, interesa duten guztiei hara heltzeko aukera emateko. "Gainera, on-line erako administrazioak erabiltzaileekiko elkarrekin sustatzen du". Tresna horiek garatu ahal izateko, liburutegiko langileek zenbait trebakuntza-ikastaro egin zuten iaz.

Beste alde batetik, Lezamako Udala webgunea berritzen dabil. www.lezama.org webgunea modernoagoa eta erabilgarriagoa izango da eta administrazio-izapideak on-line egiteko aukera emango die herritarrei.

Derioko taekwondolariak Espainiako Txapelketara joango dira

Doyan Derioko Klubeko kideek Euskadiko Taekwondo Txapelketan hartu dute parte teknika eta borrokaldi arloetan. Azken arlo horretan junior kategoriako taekwondolariak ibili dira lehian.

Kerman Arranzek, Erlantz Atutxak eta Asier Rogriguez klubeko maisuak urre bana eskuratu zuten teknika kategorian. Hirurak Espainiako Txapelketara joango dira apirilean. Borrokaldi arloari dagokionez, guztira zazpi domina lortu zituzten junior kategorian:

urre bi, hiru zilar eta brontze bi. Apirilean, Espainiako Txapelketa egingo da Kordoban, eta bertan Markel Larrabeitak eta Nagore Gastañagak hartuko dute parte.



Mascolas Maider

Konpainia animalak
Tasakurren ile-apaindegia
Osagarriak
Elikadura

Mangialdi eta Gernikako abularen tasakoa, 48160 Derio - T: 94 404 21 00

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Herniak - Zistak - alomurak - lumbagoak - belarriko arazoak
traumatismoak - Derrigorri - zondakak - Bistuko miak - obuladegirako alarriak
gelbia-erlamenteak - jarduera aurrikak eta ondorengi - prestatu

Larrabari, 1 lorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69
email: osteopatiasalai@euskalnet.net

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



Gazte Eguna egingo da Zamudion

Zamudioko gazte batzuk bildu eta Gazte Eguna antolatzea erabaki dute lehen aldiz. "Izan ere, herrian gauza gutxi dago geuretzat, eta pentsatu dugu ekimena baliagarria izan daitekeela, gazteok elkar hobeto ezagutzeko", azaldu digute.

Gazte Eguna apirilaren 9an egingo dute. Goizeko 11etan, txupinazioa botako da plazan, eta 12etan trikitilariak girotutako poteoari ekingo diote tabernaz taberna. Arrastiko ordu bietan, bazkaria izango dute, "eguraldi ona bada, plazan; eta euriarik bada, pilotalekuan" eta horren ostean bertso-saioa eskainiko da. Arrastiko 5 eta erdietan, herri kirolak izango dira eta gaueko 10etatik aurrera musika talde hauek arituko dira eszenatoki gainean: rap taldeak, Kale gorrian, 12 kilometro eta Auskalo non. Gainera, ustekaberen bat ere izango da. Bazkarirako txartelak 15

euro balio du, eta 12 euro, 14 urtetik beherakoentzat. Txartelak taberna hauetan jarri dituzte salgai: Fernan, Susterrak eta Ama3.

Bazkarian 100-150 lagun biltzea espero dute antolatzaileek. "Baina kontzertuetara jende gehiago etorriko dela uste dugu. Egun polita irtetea espero dugu, gure arteko harremana sakontzeko balio duena. Gazte Egunean edonork har dezake parte. Gainera, etorkizunari begira beste era bateko ekitaldiak ere egiteko asmoa dugu; kultur eta kirol ekitaldiak, esate baterako". Egitasmoa aurrera atera ahal izateko, antolatzaileek diru ekarpena eskatu diete herriko tabernei. Udalak, bere aldetik, eszenatokia, txosna, mahaia eta aulkiak utziko dizkie. "Biltzen dugun dirua lehen aipatutako kultur eta kirol ekitaldiak antolatzeko erabiliko da".

Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizunerako sarrerak salgai

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Euskal Astea antolatu du maiatzetarako. Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazoen *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna eskainiko dute Euskal Astean. Saioa maiatzaren 6an, bari-kuan, izango da arratsaldeko 7etan, kiroldegian. Ikuskizunak sei euro balioko du Lagatzuren bazkideentzat; eta zortzi euro, gainontzekoentzat. Bazkideek maiatzaren 4tik 8ra bitartean erosi ahalko dituzte sarrerak, Lagatzuren bulegoan, arratsaldeko 6etatik 7etara. Bakoitzak sarrera bi hartu ditzake. Maiatzaren 8tik aurrera lehentasuna galduko dute, eta ez zaie sarrerarik gordeko. Sobera gertzen diren sarrerak apirilaren 11tik 15era bitartean jarriko dira salgai udaletxean. Umeak Zamudion errol-datuta egon beharko dute, eta, gehienez, sarrera bi eskuratu ahal izango dituzte, horiek agortu arte.



ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Torrelanagoiti ind. P. 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Faxa 94 452 22 34

Ne-ahaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Aukera berdintasuna eskatu du Gure señoak elkarteak



Otsailaren 28a Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna izan zen eta Derion hainbat ekitaldi antolatu ziren egun hori zela eta. Aurreko ostiralean, umore gaia egin zen Gurea aretoan, eta otsailaren 28an bertan adierazpena irakurri zuen Gure Señoak elkarteak. Adierazpenean azaldutakoaren arabera, gaur egun Euskadin badira 170.000 pertsona gaixotasun arraroren bat dutenak, eta guztira

7.000 gaixotasun arraro antzeman dira. Gaixotasunen % 65 kronikoak dira, larriak, minusbalotasun handia sortzeaz gainera, heriotza ere eragin dezaketenak. Gaixotasun arraro gehienek ez dute tratamendurik, eta heriotzen % 35 eragiten dituzte urtebetetik beherako umeen artean, eta heriotzen % 30, bost urtetik beherako umeengan. Pertsonen % 20k hamar urte inguru itxaron behar izaten dute, diag-

nostiko egokia izan arte, eta familiek diru-sarreraren % 20 baino gehiago zuzendu behar dituzte gaixotasunari aurre egitera. Familien % 76 diskriminatuta sentitu dira.

Elkarteak familiez eta euren etorkizunaz arduratzeko eskatu die politikariei, eta aukera berdintasuna aldarrikatu du osasun, gizarte eta hezkuntza arloetan. "Gaixotasun arraroa duten lagunei bermatu behar zaie jasoko dituztela informazio zehatza, garaiz egindako diagnostiko egokia eta kalitate handiko osasunlaguntza. Era berean, elbarritasunaren, ezgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioak eskubideen gainean ekar dezaken urraketari egin behar izaten diogu aurre, eta neurriak hartu behar dira umei laguntzeko eta eskolan sartzeko". Besteak beste, hauek ere eskatu dituzte: proba genetikoak egiteko aukera, seme-alabek gaixotasunik izan ez dezaten; ikerketan inbertsio handiagoa egitea; ospitalean, eskolan, lantokian, familian... diskriminaziorik ez egotea; berdintasunerako eskubidea, medikamentu zurtzak eskuratzeko orduan; eta gaixotasun arraroa duten pertsonen parte hartzea eurengan eragina duten politiketan.

Gure Señoak elkarteak gaixotasun arraroa duten pertsonen aldeko lasterke-ta antolatu zuen martxoan. Uribe parkean lagun asko bildu ziren, eta umeek, gazteek zein nagusiek bat egin zuten deialdiarekin. Ibilaldia oinez, korrika, patinez... egin zuten parte-hartzaileek. Ostean, umeentzako tailerrak izan ziren.

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txerri-erretabidea, 8-4
413. Izaldea
48100 Derio

Teléfono eta fax
94 454 44 39
a.amondarain@euskalnet.net

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Ardiak argazkirako jartzen

Harrigarria izan zen ardi hauen jarrera. Izan ere, pazientzia handia dutela erakutsi zuten argazkia atera ari nintzaizen bitartean.

Argazkia: Aitor Mar
IZE Zamudioko argazki taldea

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net


Udondo
Ostetia

Mungialde etorbidea, 3
T: 94 656 49 09
www.pensionudondo.com

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrikortua doan
- Especialitatea: umeak

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezio sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com



"Gure arima, beti euskalduna"

t: Gaizka Eguskiza

Hilabete batean birritan egon zarete Txorierrin. Zelan sortu zen hemen jotzeko aukera?

Alexen lagun baten bitartez deitu ziguten Aikor! aldizkariaren jaian parte hartzeko. Geroago, Deriora joan ginen Ama hizkuntzaren Egunean jotzera. Biak izan ziren saio laburrak, egia esateko, eta gehiago jotzeko gogoarekin gelditu ginen. Txorierrin ezaguna da guretzat, bertan lagunak baititugu: Aitor ibilia da Larrabetzuko bertso-eskolan eta noizbait Gotzon Barandiaranekin hitz egin dugu Larrabetzuko gaztetxean zer edo zer egiteko... Hemendik lasterrera Txorierrira bueltatzeko itxaropena dugu. Hain denbora laburrean bi kontzertu izateak esan nahi du gure proiektua jendeari gustatzen zaiola, eta hori da guretzat garrantzitsuena, gauzek horrela segituz gero esker oneko lana izango da gurea.

"Kherau" hitzak "egin" esan nahi du ijito euskaldunen hizkuntzan. Zer egin nahi du taldeak?

Zuzenean jotzeko gogo itzela dugu eta inspirazioa ez bazaigu agortzen, disko gehiago ateratzea dugu amets. Hala ere, jakin badakigu bide luzea dugula aurretik eta beti ez dela erreza izango. Gaur egun, folk musika osasuntsu badago ere, pop-rocka izaten da gehien kontratatzen den musika mota eta, hortaz, gure esparrua irabazi beharrean gaude. Bestalde, proiektu hau bizi nahi dugu, eta gauzei etorri ahala egingo zaie aurre eta hartuko dira

KHERAU MUSIKA TALDEA

Azken bolada honetan behin baino gehiagotan hurbildu zaigu Kherau taldea, eta musikariei elkarrizketa egiteko aukera ez dugu alferrik galdu. Aikor! aldizkariaren jaialdian edota Derioko Ama hizkuntzaren Egunean entzun genuenok euren folk akustikoaren doinuez gozatu genuen.



Ibon Ordoñezek, Aitor Estebanek, Iker Lope de Bergarak, Gaizka Andollok eta Alex García (ez dago irudian) osatzen dute Kherau taldea

erabakiak. Zer esanik ez, apal bezain gogotsu, gure ekarpena egin nahiko genioke euskal musikagintzari eta, oro har, euskarazko produktuen ekoizpenari, baina zalantza barik, publikoarekin batera gozatu gura dugu eszenatoki gainean.

Folk akustikoa Euskal Herriatik egi-ten duzuela esaten duzue. Zer da hori?

Euskal Herrian gaur egun egiten den folkaren joera "elektrikoa" da eta askotan erabiltzen dira gitarra elektrikoak, bate-riak... Gure proiektua soilik musika tresna akustikoekin garatzeko asmoa dugu, tresna horiek daukaten organikotasuna- ren bila gabiltzalako. Batzuetan, tresna akustikoen ordez beste tresna mota ba- tzuekin aritu gara, eta horien bidez soinu ezberdinak lortu ditugu: bouzoukia, kajoia...

Zergatik erakartzen zaituzte fol- kak?

Guztiok herriko musika txikitatik bizi izan dugulako, agian. Horrezaz gain, na- hiz eta gehienetan herriko musika zahar- tzat hartu, jatorragoa eta askeagoa irudi- tzen zaigu, betiko formuletatik ihes egi- ten duelako. Izan ere, Euskal Herriko fol-

*"Tresna akustikoak
gustatzen zaizkigu
horiek daukaten
organikotasuna
dela-eta"*

*"Herriko musika
zahartzat hartzen da,
baina gure ustez
jatorra eta askea da"*

klorean oraindik ustiatzeke dagoenez, gu- re ustez, badaukagu, sortzaile eta musi- kari bezala, materia iturri itzela.

Mestizajea nagusitzen omen da zuen lanean. Zertan datza?

Guk beste herrietako musika herri- koiak entzuten ditugu eta eragina du horrek. Beste alde batetik, erabilitako

tresnek (kajoia, Euskal Herriko alboka, tri- kitia eta txirulak, Irlandako bouzoukia eta flautak edota baxu elektrikoak, jazz eta rock mundutik ekarritakoa) haien kutsua ematen diete abestiei.

Ibon, abeslaria, gure Xabi Aburru- zagarekin aritu da. Zelan izan zen?

Xabik bodhrám bat (Irlandako pande- roa) nahi zuen bere azken diskoko lehe- nengo kantarako, *Breakfast in Belfast*, eta neuk jo nuen. Elkar Estudioetan grabatu genuen, Donostian, eta bertako giroa pa- regabea izan zen. Esperientzia oso polita eta horren emaitza agerian dago, oso disko orekatua eta fina da.

Beti euskaraz abesteko asmoa du- zue?

Euskarazko proiektua da gurea. Talde- ko guztiok euskaldunak gara eta asko baloratzen dugu hori. Dena den, esan behar da gure lehenengo diskoan abesti bat katalanez abesten dugula, *El Rossin- yol* alegia. Ez diogu inolako mugarik jarri nahi egiten dugun musikari, baina Khe- rauren arima euskalduna izango da beti.

www.kherau.blogspot.com

APIRILA - EGITARAUA

Derio

GNOME Y JULIETA PG
Ostirala 1: 18:30ean
Larunbata 2: 18:00etan
Igandea 3: 17:00etan

CISNE NEGRO 18
Ostirala 1: 21:30ean
Larunbata 2: 20:30ean
Igandea 3: 19:30ean

SIGUEME EL ROLLO PG
Ostirala 8: 20:30ean
Larunbata 9: 20:30ean
Igandea 10: 19:30ean

Film laburren VIII zirkuitua
Antolatzailea: Ximintx. Euskaratzen
Osteguna 14: 19:30ean

EL SECRETO DE LA ULTIMA LUNA PG
Larunbata 16: 18:00etan
Igandea 17: 17:00etan

TORRENTE 4 17
Ostirala 15: 19:00etan
Larunbata 16: 20:30ean
Igandea 17: 19:30ean

RANGO PG
Ostirala 22: 18:30ean
Larunbata 23: 18:00etan
Igandea 24: 17:00etan

EL DISCURSO DEL REY PG
Ostirala 22: 20:30ean
Larunbata 23: 20:30ean
Igandea 24: 19:30ean

EL OSO YOGUI PG
Larunbata 30: 18:00etan
Igandea 1 (Maiatza): 17:00etan

LOS CHICOS ESTAN BIEN 7
Larunbata 30: 20:30ean
Igandea 1 (Maiatza): 19:30ean

GUREA ARETOA
Lainomendi kalea, 2 - www.derio.kondale.net



Solidarioak

t/a: Itxaso Marina

Bidaia gogorra izango dala dinoe batzuek; gogorra baino, diferentea, beste batzuek. Guztiek ilusinoaren distirea dabe begietan. Aljeriara, Daora daira-ra, Batxilergoko lehenengo eta bigarren kursoetako 20 ikaslek eta irakasle bik osatutako taldea joango da apirilean. Datea oraindino zehaztu barik dago. Eurakaz batera, Mungiako ikastetxe bateko ikasle bik egingo dabe bidaia.

Asko dira proiektuan parte hartzera animau dituen arrazoiak: saharar herriari laguntzea emotea, bertakoen kulturea eta bizimodua ezagutzea... Halanda be, egitasmoaren benetako garrantziaz bidaiatik bueltan ohartuko dirala uste dabe. "Ez dakigu zer topauko dogun han, zelan sentiduko garan... Itzultzean benetan jakingo dogu zertara joan garan". Errefuxiatuen egoerearen barri komunikabideetatik edo kanpamenduetan egon diran lagunengandik jaso dabe. Orain dala urte bi institutuko beste talde bat be Aljerian izan zan, eskola bat barritzen, eta honeek emondako informazioari esker badabe ideia bat edo bestea buruan. "Baina ez da gauza bera besteek zuri zer-bait kontetea, eta zuk hori zuzenean bizi izatea; ezbardina izango da. Beste alde batetik, pentsetan dogu esperientzia baliagarria izango dala, gauza txikiez eta dogun suertez jabetzako. Adibidez, txo-

Sopelako Nuyum alkarteak proiektu bat jarri dau martxan, Tindufen dagozan errefuxiatu sahararren kanpamenduetan: zahar-etxea. Eraikina altzatuta dago, baina orain hornidu behar da. Txorierri institutuko ikasleek bat egin dabe egitasmoagaz, eta Aste Santuan abiatuko dira basamorturantz.

rrota irekitzea ura hartzeko, ohitura arrunta da guretzat; eurentzat, barriz, ez".

Irriak eta herriak

Eraikina horniduteko, eguzki-plakak beharko dira, elektrizidaderako hodiak, kableak, sukaldeko tresneria, altzariak... Aurreikuspenaren arabera, material horrek guztiak 6.000 euro inguru balio izango dau. Ganera, abenduan material gehiago aginduko dabe zahar-etxera, pisu handiko altzariak-eta, eta horrek 3.000 euro inguru balio izango dauala kalkulau dabe. "kasu batzuetan Txorierriko udal-etara eta enpresetara jo dogu diru-lagun-

"Itzultzean benetan jakingo dogu zertara joan garan"

tza eske, eta beste batzuetan material eske. Proiektu garrantzitsua da, solidarioa, eta lagunduko deuskuela uste dogu".

Martxoaren azken asterako eta apirilaren lehen egunetarako arropa bilketea antolatu dabe, eta hori be kanpamenduetara aginduko da. "Botikak eroaten be ahaleginduko gara". Era berean, kamisetak jarriko dabez salgai, bidaia ordaintzen laguntzeko. Kamisetetan "Irriak eta herriak ezin diralako giltzapetu" leloa idatziko dabe. Aurreko hilebeteotan be hainbat ekimen egin dabe bidaiaren haritik: Gabonetako saskiaren zozketea eta janari bilketea, esate baterako.

Politika arloan garai korapilatsuak bizi dira arabiar herrialdeetan, eta ez dakie azkenean arazorik eukiko daben bidaia egiteko. "Dana dala, guk bardin-bardin aginduko dogu bai dirua, bai materiala".

Informazio gehiagorako:
www.txorisahara.blogspot.com
txorisahara@gmail.com

Zure enpresa edo komertzioa ere bazkide izan daiteke!

Euskal kultura
sustatzea denon esku dago
eta holako proiektuek guztion
laguntza behar dute. Beste
komertzio edo enpresak ere
animatu nahi ditut

Baserri Antzokiak
bertan eskainiko dituen
zerbitzuak oso erakargarriak
iruditu zaizkit. Gainera,
bazkideok abantailak
ere baditugu

Proiektu zabala eta
biltzailea dala uste dot,
Txorierrirako gune aberasgarria
izango dana, eta gizarte
osoak lekua izango
dau bertan

Baserri Antzokiaren
beharra ikusten dut; eta
Baserri Antzokiak, geure
beharra aurrera egiteko. Beraz,
negozio guztion laguntza
beharrezkoa da

Baserri Antzokiak
bizitza soziala eta komertziala
bultzatuko ditu Txorierrin.
Horrek gure ingurunea
sustatu egingo du

...eta zu,
zergatik egin
zara bazkide?

ENPRESA BAZKIDE BATZUK

- Sormentaorain 2010, s.l.
- Rafa Busak, s.l.
- Aurtenetxe, s.a.
- Lorra, S. Coop.
- Garkalde Txakolina
- Magalarte Txakolina (Lezama)
- Cianoplan, s.l.
- Urbelan, s.a. eraikuntza enpresa
- Patxi, S. Coop.
- Ainhoa Quijano Cuesta Farmazia
- Oskarbi Fotoafoak
- Sukia Eraikuntzak, s.a.
- Euskadi Fundazioa
- Beriain Elektrizitatea, s.l.
- Trikuharri Canteros, s.l.
- Liliak Loradenda
- Ederki Estetika
- Ane Ileapaindegia
- Zainduz Hartz Klinika
- Suit Delux Colchoneria Arteaga
- Lantegi Batuak Fundazioa
- Derribos Petralanda, s.l.
- M^a Antonia Díaz García Farmazia



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!



Tel.: 634 401 580 (Alazne)



69 posta kutxa
48160 Derio



alegarreta@baserriantzokia.com
www.baserriantzokia.com



Txorierriko
Euskara Elkarteak

Kulturaren hauspoa

Kanpotik ikusi dogunean eraikin handia eta bitxia iruditu jaku, baina askoz inpresino hobia hartu dogu barrura sartu garenean. Kultur Birika Derioko kultur etxea eraikin zabala da, argitsua, modernoa eta lekuak arretaz antolatuta dituana. Hemendik aurrera kulturaren ardatza izango da udalerrian.



t/a: Itxaso Marina

Bisitaldia sototik hasi gara. Han autoa ixteko 77 leku dagoz, eta horreetako hiru elbarrituentzat dira. Aparkaleku pribadutzat erabiliko da eta lekuak epe luzera emongo jakez jaubeei. Sotoan be herriko alkarteek erabili leikiezan bederatzi biltegi dagoz, eta liburutegiaren biltegia eta udal artxibo historikoa. Aparkalekurako sarrerea zein biltegiatarakoa independenteak dira.

Sototik atera eta sarrera nagusirantz abiau gara. Atea zabaldu eta harrera-zerbitzua topau dogu aurrez aurre. Gustau egin jaku altzarien diseinua eta benetan eraikin modernoa dala pentsau dogu. Arreta deitu deuskun beste ezaugarri bat eraikin barruan dagoan argitasuna izan da. Atzean dogun hormarantz birau dogu burua eta horma osoa hartzen dauan leihatea ikusi dogu. Argitasuna eta modernidadea nagusi izan dira sartu garan gela guztietan.

Beheko solairua kuriosidadez jarraitu dogu aztertzen: *vending* gunea, erakusketak eta bestelako ekitaldiak egiteko areto zabala, eta olgetan edo solasean ibilteko gunea. Arrapala batek lehenengo solairua eroan gaitu. Bertan udal kultura saileko bulegoa kokatu da, eta biltegi txiki bat eta administrariak zein alkarteek erabilteko hiru batzar-gela txiki atondu dira. Liburutegia be badago lehenengo solairuan: umeentzako saila, nagusientzako, ikasgela eta hemeroteka, tartean. Eraikin osoan wifia dago eta mahai guztiek badabe entxufea erabiltzaileek orde-

*“Herritarrak hona
etorri eta kulturea
arnastea gura dogu”*

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Ostasi-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDONZTZA-ESTETIKA
BARRUAK ZEPIN HIL DUNAK

Dr. Amela Kalea, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Uribe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 453 13 70

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

 **Garmendia
ardoak**

Pinoa pol. P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



nagailu eroangarria bertan konektetako. Bisitagaz jarraitu dogu eta Kz-gunearen aretora sartu gara, eta alkarteek erabili leikien areto zabal batera. Azken honi Txorierrri jarri deusie izena, baina Lauaxeta, Iparragirre eta Etxepare gelak be badagoz. Gelotan berbaldiak eta antzeko kultur ekimenak egingo dira.

Bigarren solairuan euskal herrialdeen izenak dituen aretoak topau doguz. Orotara sei areto dagoz eta han udal tailerrak kokatuko dira. Aretoetako bat herriko dantza taldeak eta abesbatzak erabiliko dabe entseguak egiteko. Solairu honetan vending gunea eta oso terraza handia be badagoz. Aitatutakoaz ganera, kultura etxeak baditu, besteak beste, klimatizazio-sistemea, eguzki-plakak eta soinu-sistemea. Era berean, igongailu bi ditu eta komunak elbarrituentzat dagoz egokitu-ta. Beste alde batetik, eta beharrezkoa izan ezker, etorkizunean beste solairu bat altxeteko aukerea egongo da liburutegiaren ganean.

Herritarren topagunea

Kultur Birika kultura etxea Uribe De-

rioko parkean altzau dabe. Kultura etxea herriko gainontzeko kultura eta kirol instalazioetatik hurbil dago, eta derioztarren bizitza kulturalaren ardatza izango da. "Kultur Birika herritarren topagune bihurtzea dogu helburu", esan deusku Jesus Lagunas kultura zinegotziak, "Zerbitzu batzuk, udal tailerrak esate baterako, sakabanatuta euki doguz herritik, eta ideia horreek guztiak leku berean egotea izan da". Asmoaren haritik, funtzino antzeko eraikina diseinatu da eta aretoek aukerea emongo dabe ekimen ezberdinak antolatzeke. Kultura etxeak Gurea Aretoak eta Larrabarri baserriak eskaintzen dituen zerbitzuak be osatuko ditu.

Izena arretaz zaindu daben azpiegituraren beste alderdi bat izan da. "Kultur Birika jarri deusguz izena, hori dagoan natura-gunea kontuan hartuta eta herritarrek hona etorri eta kultura arnasteko gura dogulako".

Eraikinak kulturari zuzenduta dagozan 3.221 metro karratu ditu eraikita. Udalak 5,5 milioi euro inbertitu ditu azpiegituran, eta 230.000 euroko ekarpena jaso dau Bizkaiko Foru Aldunditik.

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragolti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sokalde eta bainugeleako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragolti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

ERREKA ONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelarragolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

GORBEIA MERTZERIA

Gorbea kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Txorierriko suhiltzaileak, beti prest!


Bizkaiko Foru

Aldundiak zortzi suhiltzaile-etxe ditu

lurralde osoan, eta haietako bat Txorierrin dago,

Derion. Eraikina berri-berria da eta bertako 38 gizonek

suteetatik eta beste mota batzuetako istripuetatik babesten gaituzte. Haiekin eman dugu goiza, eta euren lanari buruz hitz egin digute.





t/a: Gaizka Eguskiza

Goizeko zortziak eta hamar dira eta suhiltzaileen erreleboa sartu da Derioko egoitzara. Egun osoa emango dute bertan, 24 ordu lanean. Gero bost jaiegun izango dituzte, baina ez dute horri buruz pentsatzeko astirik: sartu bezain laster, argibideak jasotzen dituzte; geroago, tresneria eta trajeak aztertzen dituzte. Irteteko prest, beti. "Batuetan ikastaroak-eta egiten ditugu goizean; arratsaldean kirola edo lo kuluxka bat egiten dugu... Suhiltzaileok inoiz ez dugu lorik egiten; guk

atseden hartzen dugu, besterik ez! Baina hori guztia albo batera uzten dugu, larrialdiren bat gertatuz gero", esan digu Javier Larrinaga zonako arduradunak.

Txorierri dagokion parkea Mungian zegoen, baina Deriora ekarri zuten duela hamar urte baino gehiago. Haraneko herriek hazi eta hazi egin dira eta, ondorioz, zahartuta gelditu zen eraikina. Egoitza berria 2010ean bukatu eta ireki zen, baina oraindik ez diote inaugurazio ofizialik egin. Suhiltzaileak pozik daude bertan. "Leku handiagoa dugu bai ariketak egiteko, bai kotxeak mugitzeko... Lehen-

Bizkaiko suhiltzaileak

Bizkaian zortzi suhiltzaile-etxe daude, eskualdeka banatuta: Urioste eta Balmaseda; Artatza eta Derio; Basauri eta Gernika; Markina eta Iurreta. Gainera, boluntarioek osatutakoak ere badaude Karrantzan, Urduñan, Otxandion eta Lanestosan. Derion ere badago ibilgailuak ordezkatzeko zerbitzua. 2009an, 5.278 irteera egin zituzten Foru Aldundiko suhiltzaileak: % 40 suteak izan ziren; % 42, salbamenduak; eta % 18, laguntza teknikoak. Deriokoak gutxien irteten direnetakoak dira, 373 aldiz baino ez zuten irten behar izan. Lanik gehien egiten duena, ordea, Uriostekoa da, 1.814 irtenaldi eginik.

go eraikina behin-behinekoa zen, barrakoi modukoa, eta urte gehiegi eman genuen han. Orain gusturago gabiltza". Parkeak 5.400 metro koadroko azalera du.

Derioko kokapena estrategikotzat jotzen du Bizkaiko Foru Aldundiak. Izan ere, Teknologia Parkearen barruan dago, eta hurbil-hurbil du Bilbo eta Mungia lotzen dituen errepidea. Hori dela-eta, leku batetik bestera azkar joateko aukera dute hango suhiltzaileak. Txorierri gain, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Leizor, Maruri-Jatabe, Meñaka eta Mungia

"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

ere babesten dituzte. Guztira, 42.000 lagun bizi dira inguru horretan. Bilbotik gertu ere badago Derioko etxea, baina gure suhiltzaileek ez dute normalean Bilbokoekin arazorik izaten. "Behar izanez gero, guk laguntza eskatzen diegu, eta eurek, beste hainbeste. Istripu edo larrialdia nolakoa den, bakarrik edo elkarrekin egiten dugu lan".

Emakumerik ez

Guztira, 38 suhiltzaile daude Derion, eta haietako bi sarjentuak dira. Gizonezkoak dira guztiak. Suhiltzaile izateko probak oso zailak dira, "gero eta zailagoak", eta, emakumeen aldeko diskriminazio positiboa egiten bada ere, oso gutxi gainditzen dituzte azterketak. "Duela 30 urte beste mota bateko jendea aurkeztzen zen oposizioetara: eskarmentua zuten lan merkatuan, eta euren trebakuntza ez zen hain handia; orain, berriz, gazteagoak

"Suhiltzaileek ez dugu lorik egiten; guk atsedean hartzen dugu, besterik ez"

Emakumeen aldeko diskriminazio positiboa egiten bada ere, oso gutxi gainditzen dituzte azterketak

dira, ez dute lan-eskarmenturik, eta euren prestakuntza, bai fisikoa, bai akademikoa, izugarrikoa da", dio Iñigo Isasi sarjentuak.

Suhiltzaileek suteak itzaltzen dituzte, baina horrezaz gainera, hainbat arrazoi-rengatik, irteten beharra izaten dute egunero-egunero. "Auto-istripuetan pertsonak atera behar izaten ditugu askotan autoetatik. Horri lotuta, guk garbitu behar izaten dugu errepidea, gasolina edo produktu arriskutsuak isurtzen direnean. Beste alde batetik, gaur egun gero eta gehiago dira pertsona nagusiak, eta haien etxeetan sartu behar izaten dugu jausi direlako eta ezin dutelako atea ireki. Salbamenduak ere egin behar izaten ditugu, jendea igogailuetatik edo amildegietatik irteten ezinik badabil", aipatu du Larrinagak. Eta txantxa dirudien arren, animalia bat ere erreskatatu egiten dute.



Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK



Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

Patxi S.KOOP.
BARRATZARRE OFIZIALA



Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop
www.patxi.coop

Gogorra da oposizioa gainditzea, baina lortzen dutenean, merezi egiten du suhiltzaile aritzea. "Zeure lana da, baina egiten duzunean, lagundu egiten diozu jendeari, eta hori pozgarria da. Lan finkoa da, gainera, eta denbora libre ematen dizu bidaia egiteko edo zeure zaletasunak lantzeko. Hala ere, gogorra eta arriskutsua da, eta egoera larriei aurre egin behar diezu batzuetan; esaterako, istripuak eta hildakoak izaten direnean", adierazi du Isasik. "Bai, ohikoa da arriskua: sua itzaltzerazoa zenean, ez duzu jakiten zer egongo den erakinaren barruan, zein egoeratan dagoen... Gehienetan, ez duzu jakiten zer topatuko duzun, lekua ezezaguna izaten baita", gaineratu du Larrinagak.

